

GIZARTE ZIENTZIAK: ULERMENA/ IRAKURMENA LANDU ETA EBALUATZEKO PROPOSAMENA

ULERMEN OROKORRA

-Testuaren gaia eta helburua identifikatzen ditu.

Zein da testu honen gaia/ ideia nagusia?

-Lehen eta bigarren mailako ideiak eta hauen

antolaketa identifikatzen ditu.

Zein erlazio dago pasartearen artean? Konparaketa, kontrakotasunak, kausa-ondorioak, deskribapenaren garapena...?

INFORMAZIO ZEHATZA LORTZEA (Testuaren edukiaren arabera)

Zer gertatu zen...? Noiz...? Zergatik...?

-Gertakari eta prozesu historiko nabarmenenak identifikatzen ditu.

-Egungo gizartearen ezaugarri sozialak eta kulturalak identifikatzen ditu.

-Lanbide ohikoenen ezaugarriak ezagutzen ditu eta Euskal Herriko eta

-Espainiako jarduera ekonomiko nagusiak identifikatzen ditu.

-Gizarte Komunikaziokozenbait komunikabide eta horien egitekoak identifikatzen ditu.

-Testuan dauden datu objetiboak eta ez objetiboak bereizten ditu.

TESTUAREN INTERPRETAZIOA ETA BALORAZIOA (Testuaren edukiaren arabera)

Zer uste duzu...? Zergatik uste duzu...? Zer ondorio ateratzen duzu...?

Errealitate historikoaren bilakaera

Gertakari eta prozesu historiko nabarmenenen ezagutza erabiltzen ditu testua interpretatzeko eta balorazioak egiteko.

Gizartearen funtzionamenduaren eta haren lorpen eta erronken ulermena.

Egungo gizartearen ezaugarri sozialak eta kulturalen ezagupena erabiltzen ditu testua interpretatzeko eta balorazioak egiteko.

Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa

Pertsonen oinarrizko beharrianak eta horiek asetzeko baliabideen eta bitartekoen ezagutza erabiltzen ditu testua interpretatzeko eta balorazioak egiteko.

Jarduera ekonomiko nagusien antolamenduaren eta egituraren oinarrizko zenbait ereduen ezagupena erabiltzen ditu testua interpretatzeko eta balorazioak egiteko.

Kontsumo eta publizitatearen ezaugarrien ezagupena erabiltzen ditu testua interpretatzeko eta balorazioak egiteko.

Informazioa eta komunikazioa

Gizarte-komunikazioko komunikabideen ezagutza erabiltzen du testua interpretatzeko eta balorazioak egiteko.

Informazioa, iritzia eta propaganda bereizten ditu.

Oharra: Geografia eta Historiako departamentuetanrako erabilgarria izan daitekeen proposamena.

Gizarterako eta Herritartasunerako kompetentziaren Ebaluazio Diagnostikoan oinarritu eta egokituta.